| | |
|---|---|
| **UDAL HONETAKO PLANTILAN HUTSIK DAGOEN LEHEN MAILAKO AGENTE LANPOSTU BAT ZERBITZUALDIAN ETA MERITU LEHIAKETA BIDEZ BEHIN BEHINEKO IZAERAZ HORNITZEKO DEIALDIA** | **CONVOCATORIA PARA LA PROVISIÓN TEMPORAL EN COMISION DE SERVICIOS, MEDIANTE CONCURSO DE MÉRITOS, DE UN PUESTO DE TRABAJO DE AGENTE PRIMERO VACANTE EN LA PLANTILLA DE FUNCIORARIOS/AS DE ESTE AYUNTAMIENTO** |
| **LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA** | ***PRIMERA. OBJETO DE LA CONVOCATORIA*** |
| Deialdi honen xedea da Udaleko Udaltzaingoari atxikiriko Lehen mailako agente lanpostu bat, gaur egun hutsik dagoena, merezimendu-lehiaketa bidez behin behineko izaeraz hornitzea zerbitzualdiaren erregimenean eta Udaleko Udaltzaingoko karrerako funtzionarioei mugatuta. | La presente convocatoria tiene por objeto la provisión temporal en régimen de comisión de servicios mediante el sistema de concurso de méritos por promoción interna de un puesto de trabajo de Agente Primero adscrito al Servicio de Policía Municipal, actualmente vacante en el Ayuntamiento de Azkoitia, restringido a los funcionarios de carrera de Policía Local del Ayuntamiento de Azkoitia. |
| **BIGARRENA. LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK** | ***SEGUNDA. CARACTERÍSTICAS DE LOS PUESTOS*** |
| Plaza: Administrazio Berezia Eskala, Zerbitzu Berezia Azpieskala eta Udaltzaingoa eta bere laguntzaileak mota | Plaza: Subescala de Servicios Especiales de la Escala de Administración Especial, clase Policía Local y sus auxiliares |
| Lanpostua: Lehen agentea | Puesto: Agente Primero |
| Sailkapen taldea: C2 (nolanahi ere, kontutan hartuko dira 2/2008 Legea autonomikoaren xedapenak) | Grupo de clasificación: C2 (en cualquier caso, se tendrán en cuenta las disposiciones de la Ley autonómica 2/2008) |
| Destino osagarriaren maila: 17 | Nivel de Complemento de Destino: 17 |
| Baliagarritasuna: %6 | Disponibilidad: 6% |
| Eskaturiko hizkuntza eskakizuna: 3, derrigorrezkoa, eta derrigortasun dataren epemuga igarota (2008/04/24) | Perfil lingüístico exigido: 3, preceptivo, con fecha de preceptividad vencida (24/04/2008). |
| Lan ordutegia: Udalbatzak urtero ezartzen duena; edozelan ere, lanpostuaren izaera eta beharrizan | Horario de trabajo: la que establezca anualmente la Corporación atendiendo, en |

| | |
|---|---|
| espezifikoei erantzungo die (goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandak, jaiegunak barne). | todo caso, a la naturaleza y necesidades específicas del puesto (turno de mañana, tarde y noche, festivos incluido). |
| **HIRUGARRENA. FUNTZIOAK** | **TERCERA. FUNCIONES** |
| 2005eko uztailaren 28ko Udalbatza-Plenoak onarturiko eta egun indarrean dagoen LKS enpresak idatzitako Funtzioen Eskuliburuan ezarritakoak (oinarri hauei eransten zaizkio).<br>Eta orokorrean, | Las establecidas en el Manual de Funciones vigente (redactado por LKS), aprobado por el Pleno el 28 de julio de 2005 (se adjunta a las presentes bases).<br><br>Y en general, |
| Funtzio orokorra:<br>-Poliziaren funtzioek eskatzen duten zeregin exekutiboak betetzea, baita zerbitzu operatiboan dauden eskalako funtzionarioetako baten edo gehiagoren aginduak ere. | Función general:<br>- Ejercitar las tareas ejecutivas que que demanden las funciones policiales, así como las de mando de uno o más funcionarios de Escala en servicio operativo. |
| Zeregin nagusienak:<br>- Zerbitzuak planifikatzea Udaltzainburuarekin batera.<br>- Udaltzainburuak emandako aginduen arabera koordinatzea zerbitzuak.<br>- Zerbitzuko gorabeheren berri ematea Arduradunari.<br>- Larrialdietan zerbitzuak antolatzea.<br><br>- Zerbitzuaz eta bere aginduetara dauden agenteez erantzutea.<br>-Udaltzaingoaren arlokoa izanik, Arduradunek agintzen dioten beste edozein lan. | Tareas más significativas:<br>- Planificar los servicios junto con el Jefe de Policía Local.<br>- Coordinar los servicios conforme lo ordenado por el Jefe de Policía Local.<br>- Comunicar las incidencias del servicio a su superior.<br>- Organizar los servicios en los casos de emergencia.<br>- Responsabilizarse del servicio y de los agentes que estén a su cargo.<br>-Cualquier otra tarea que le encomienden sus superiores dentro del área de la Policía Local. |
| **LAUGARRENA. PARTE HARTEKO BALDINTZAK** | **CUARTA. REQUISITOS Y CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN** |
| Deialdi honetan parte hartzeko ezinbestekoa da aurkezten direnek ondoko baldintzak betetzea: | Para participar en la presente convocatoria será necesario que los aspirantes reúnan los siguientes requisitos:<br><br>1. Estar en posesión del Título de |

| | |
|---|---|
| 1. Eskola Graduatuaren, Lanbide Heziketako Lehen Mailako edo baliokidearen tituluaren jabe izatea. | Graduado Escolar, Formación profesional de primer grado o equivalente. |
| 2. Azkoitiko Udaleko karrerako funtzionarioa izatea. | 2. Ser funcionario de carrera del Ayuntamiento de Azkoitia. |
| 3. Azkoitiko Udaleko udaltzain agenteen kategorian jarduneko zerbitzuan egotea, eta zerbitzu horretan bi urteko zerbitzualdia osaturik izatea. | 3. Hallarse en situación de servicio activo en la categoría de Agente de la Policía Local del Ayuntamiento de Azkoitia, y haber completado dos años de servicios efectivos en la misma. |
| 4. Hutsegite larria edo oso larria egiteagatik zigortu ez izana, ezarritako zigorra deuseztatu ez bazaio behintzat. | 4. No haber sido sancionado por la comisión de falta grave o muy grave, salvo que se hubiera obtenido la cancelación de la sanción impuesta. |
| 5. Nahitaezko izaera duen 3. HE egiaztatzea, edo horren baliokidea. | 5. Acreditar el perfil lingüístivo preceptivo para el puesto (3 o equivalente). |
| 6. B klaseko edo baliokidea den gidatzeko baimenaren jabe izatea, eta lehentasunezko ibilgailuak (BTP) gidatzeko baimena izatea. | 6. Estar en posesión del permiso de conducir clase B o equivalente, y de la autorización para conducir vehículos prioritarios (BTP). |
| Parte hartzeko baldintza guztiak eta lanpostuan aritzeko betebeharrak betetzeko erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea bukatzen denekoa izango da. | La fecha de referencia para el cumplimiento de todas las condiciones de participación señaladas y los requisitos para el desempeño del puesto será el día en que finalice el plazo de presentación de instancias. |
| **BOSGARRENA. ESKAERAK AURKEZTEA** | **QUINTA. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES** |
| Lehiaketa honetan parte hartzeko eskabideetan, izangaiek deitutako lanpostua betetzeko ezaugarriak betetzen dituztela adierazi beharko dute. Eskabideak Udaleko Alkate-Udalburuari zuzenduko zaizkio, Azkoitiko Udaleko Erregistro Orokorrean edo Herri Administrazioen Araubide Orokorra eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan | Las solicitudes para tomar parte en este concurso, en las que las personas aspirantes manifestarán que reúnen todos los requisitos para desempeñar el puesto solicitado, se dirigirán a la Alcaldesa-Presidente de la Corporación, debiéndose presentar en el Registro General del Ayuntamiento de Azkoitia o en los lugares previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992 de Procedimiento Administrativo |

| | |
|---|---|
| zehazten diren lekuetan aurkeztuta. Eskaerak postaz igortzen badira, kartazala irekita eraman beharko da postetxera, eta han, ziurtatu aurretik, eskabideak zigilatu eta data emando zaie. | Común. Si las instancias se remiten a través del servicio de Correos habrán de presentarse en sobre abierto, para que sean selladas y fechadas por el citado servicio antes de ser certificadas. |
| Interesdunek, parte hartzeko eskabideaz gain, honako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte: | Las personas interesadas deberán presentar, junto con su solicitud de participación, los siguientes documentos: |
| a) NAN-aren kopia konpultsatua. | a) Fotocopia del DNI compulsado. |
| b) Tituluazio akademikoa, tituluaren fotokopiaz edo eskabidearen ordezkagiriaz, tasak ordaindu eta gero. | b) Título académico, mediante fotocopia del título o resguardo de su solicitud tras el abono de tasas. |
| c) Prestakuntza ikastaroetarako, erakunde antolatzailearen ziurtagiriaren fotokopiaz, eta berariaz adieraziko du zenbat ikas-ordu edo kreditu dituen. | c) Para los cursos formativos, mediante fotocopia de la certificación de la entidad organizadora que expresamente señale el número de horas lectivas o créditos. |
| d) Administrazio Publikoan eskainitako zerbitzuen eta maila pertsonalaren merezimenduei dagozkien egiaztagiriak, ez dira zertan erantsi beharko, Udaleko espediente pertsonalean jasota badaude, izan ere, Balorazio Batzordeak egiaztatuko du hori guztia izangai bakoitzaren espedientean. | d) Los documentos acreditativos correspondientes a los méritos de los trabajos prestados en la Administración y de grado personal, no será preciso adjuntarlos si ya constasen en el expediente personal del Ayuntamiento, ya que la Comisión de Valoración realizará las comprobaciones pertinentes en el expediente personal de cada aspirante. |
| e) 3. HE edo baliokidearen ziurtagiria. | e) Documento justificativo de la acreditación del PL 3 o equivalente. |
| g) B motako edo baliokidea den gidatzeko baimenaren kopia konpultsatua, eta lehentasunezko ibilgailuak gidatzeko baimenarena (BTP) ere. | g) Fotocopia compulsada del permiso de conducción tipo B o equivalente, y de la autorización para conducir vehículos prioritarios (BTP). |
| Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdiaren iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Udaleko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. | El plazo para la presentación de solicitudes será de 15 días hábiles, contados a partir del día siguiente a la publicación del anuncio de la convocatoria en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la página web del Ayuntamiento. |

| | |
|---|---|
| **SEIGARRENA. HAUTAGAIEN ONARPENA** | **SEXTA. ADMISIÓN DE ASPIRANTES** |
| Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du Alkate-Udalburuak, eta Udaleko Iragarki Taulan eta web orrian argiratzea aginduko du. Erreklamazioak egiteko 10 eguneko epea ezarri da, izan litezkeen akatsak zuzendu ahal izateko. | Expirado el plazo de presentación de instancias, la Alcaldesa-Presidente aprobará la lista provisional de personas aspirantes incluidos/as y exlcuidos/as y ordenará su publicación en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la página web del mismo, estableciéndose un plazo de reclamaciones de 10 días para poder subsanar los defectos y/o errores en que pudiera haberse incurrido. |
| Behin-behineko zerrenda besterik gabe behin betikotzat joko da, inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada. Aurkeztuz gero, onartu edo baztertu egingo dira erabaki berri baten bidez, behin betiko zerrenda onartzeko, eta horren berri emango du Udalak, lehen adierazitako moduan. | La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjeran reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución, por la que se apruebe la lista definitva y que se hará pública, asimismo, en la forma indicada. |
| **ZAZPIGARRENA. BALORAZIO BATZORDEA** | **SÉPTIMA. COMISIÓN DE VALORACIÓN** |
| Merezimenduak Balorazio Batzordeko ondorengo kideek balioetsiko dituzte: | Los méritos serán valorados por una Comisión de Valoración compuesta por los siguientes miembros: |
| Lehendakaria:<br>- Udaltzaingoko Azpiofiziala (Arduraduna) | Presidente:<br>- El Suboficial de la Policía Municipal (Responsable) |
| Batzordekideak: | Vocales: |
| -Udaltzaingoko Azpiofiziala | -Suboficial de la Policía Municipal |
| - Udal-Idazkaria | - La Secretaria Municipal |
| Idazkaria:<br>Kontratazio eta Pertsonal arloko AOT edo bere ordez izendatzen den funtzionarioa. | Secretaria:<br>TAG de Contratación y Personal o funcionario en quien delegue. |
| Kide titular bakoitzeko, ordezko bat | Por cada miembro titular será designado |

| | |
|---|---|
| izendatuko da, eta agertu ez izana frogatuz gero, hitzarekin eta botoarekin ordezkatuko du. | un/a suplente que, en caso de ausencia justificada, le sustituirá con voz y voto. |
| Batzordekideei Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan finkatzen dituzten parte ez hartze eta errefusatze kasuak aplikatuko zaizkie. | A los miembros de la Comisión les serán de aplicación los supuestos de abstención y recusación de los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. |
| Balorazio batzordeko kideak izendatzean inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak errespetatu behar dira, eta gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna kontutan hartuko da. Halaber, espezialitate printzipioa errespetatuko da, eta horren arabera, kideen erdiak behintzat, deialdi honetan parte hartzeko eskatzen duten jakintza, Sail berari dagokion titulazioa eduki behar du. | En la designación de los miembros de la Comisión de Valoración deberán respetarse los principios de imparcialidad y profesionalidad y se tenderá a la paridad entre hombres y mujeres. Se respetará, asimismo, el principio de especialidad, conforme al cual al menos la mitad de los miembros deberá poseer una titulación correspondiente a la misma área de conocimiento que la exigida para tomar parte en esta convocatoria. |
| Balorazio batzordeari egokituko zaio oinarri hauek ulertzerakoan sor daitezkeen zalantza eta kontu guztiak argitzea, baita prozesua behar bezala joan dadin hartu beharreko akordio guztiak hartzea ere, aplikatzekoa den lege-araubidean edo oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako. Balorazio Batzordearen akordioen kontra errekurtsoak jar daitezke, administrazio-prozedura arautzen duen legeriak agintzen duen moduan. | La Comisión de Valoración resolverá cuantas dudas y cuestiones se presente en todno a la interpretación de estas bases y para tomar acuerdos necesarios para el buen orden de proceso, en todo aquello que no esté previsto en la normativa legal aplicable o en las propias bases. Sus acuerdos podrán ser objeto de recurso, en los términos que regula la legislación en materia de procedimiento administrativo. |
| Balorazio Batzordeak aukera izango du bere jardunerako aholkulariak hartzeko, balorazioaren faseren baterako. Kide horiek mugatuko dira haien espezialitate teknikoetan aholkuak ematen, eta haien txostenek eta iritziek ez dute izango Balorazio Batzordeak ematen dien balioa baino. | La Comisión de Valoración podrá disponer la incorporación de asesores especialistas para alguna de las fases de valoración. Estos miembros se limitarán al asesoramiento en sus especialidades técnicas, sin que sus informes u opiniones tengan otra validez que la que les otorgue la Comisión de Valoración. |

| ZORTZIGARRENA. MERITUEN LEHIAKETA | OCTAVA. CONCURSO DE MÉRITOS |
|---|---|
| Lehiaketa honek fase bakarra izango du eta jarraian zehazten diren merezimendu orokorrak balioetsiko dira. | El presente concurso consta de una sola fase, en la que se valorarán los méritos generales enumerados a continuación. |
| Eskabideak aurkezteko epe amaiera izango da merezimenduak baloratzeko erreferentzia-data, eta parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentu bidez egiaztatuko dira. Balorazio-jardunbidean izangaiei azalpenak edo, kasuan kasu, dokumentazio osagarria eskatu ahal izango zaie, alegatutako eta, kasuan kasu, egiaztatutako merezimenduak frogatzeko. | Los méritos se valorarán con referencia a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias y se acreditarán documentalmente junto con la solicitud de participación. En el proceso de valoración podrán recabarse de los interesados las aclaraciones o, en su caso, la documentación adicional que se estime necesaria para la comprobación de los méritos alegados y, en su caso, acreditados. |
| Ondoren zehaztuko diren merezimenduak soilik balioetsi eta kalifikatuko dira, merezimendu bakoitzerako finkatutako baremoaren arabera: | Se valorarán y calificarán exlcusivamente los méritos que se indican a continuación y según el baremo que se indica para cada uno de ellos: |
| a)Administrazio Publikoan Udaltzain bezala eskainitako zerbitzuak: 0,50 puntu lan egindako hiruhilabete bakoitzeko. Hilabete zatiak baino txikiagoak ez dira kontuan izango. Gehienez ere, 15 puntu. | a) Servicios prestados en la Administración Pública como Agente de la Policía Local: 0,5 puntos por trimestre de trabajo, ignorándose o desechándose las fracciones inferiores de mes hasta un máximo de 15 puntos. |
| Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurreko aldiak baino ez dira kontuan izango. | Se contabilizarán solamente los periodos anteriores a la fecha del fin del plazo de presentación de solicitudes. |
| b) Lanpostuarekin zerikusi zuzena duten kurtsoak eginda izatea, gehienez 15 puntu, ondoren zehazturiko eran baloratuko direlarik: | b) Cursos de formación o perfeccionamiento directamente relacionados con el contenido del puesto de trabajo convocado, hasta un máximo de 15 puntos valorándose según la tabla que se adjunta: |
| - 5-10 ordu arteko ikastaroa............0,10 puntu<br>- 11-20 ordu arteko ikastaroa.............0,20 | - Curso entre 5-10 horas de duración...... 0,10 puntos<br>- Curso entre 11-20 horas de |

| | |
|---|---|
| puntu<br>- 21-40 ordu arteko ikastaroa............0,50 puntu<br>- 41-60 ordu arteko ikastaroa.............0,80 puntu<br>- 61-100 ordu arteko ikastaroa.........1,50 puntu<br>- 100 ordu baino gehiegoko ikastaroa..........3 puntu | duración......0,20 puntos<br>- Curso entre 21-40 horas de duración ..........0,50 puntos<br>- Curso entre 41-60 horas de duración...............0,80 puntos<br>- Curso entre 61-100 horas de duración.............1,50 puntos<br>- Más de 100 horas de duración......3 puntos |
| c) Maila pertsonala | c) El grado personal |
| Maila pertsonal finkatua gehienez ere 5 punturekin baloratuko da, ondoko banaketaren arabera: | El grado personal consolidado se valorará con un máximo de 5 puntos, según la distribución siguiente: |
| -Lanpostuaren mailako osagarriaren maila berdineko edo handiagoa duen maila pertsonal bat finkatu izanagatik: 5 puntu. | - Por haber consolidado un personal igual o superior al nivel del complemento de destino del puesto: 5 puntos |
| -Lanpostuaren mailako osagarriaren maila txikiagoa duen maila pertsonal bat finkatu izanagatik: 3 puntu. | - Por haber consolidado un grado personal inferior al nivel del complemento de destino del puesto: 3 puntos. |
| Ondorio horietarako, ulertuko dugu edozein arrazoirengatik maila pertsonal finkatu bat egiaztatzerik ez duten funtzionarioek eskatu den lanpostuaren maila baino txikiagoa den maila bat dutela. | A estos efectos, se entenderá que poseen un grado personal inferior al nivel del puesto solicitado, las personas funcionarias que, por cualquier motivo, no puedan acreditar un grado personal consolidado. |
| Gradua egiaztatzeko, Administrazio Publikoetan finkaturiko gradu pertsonalari buruzko egiaztagiria aurkeztu beharko da eskabidearekin batera. Egiaztagiria jatorrizko herri-administrazioetako eta erakundeetako Pertsonaleko Zuzendaritzek egin beharko dute. | El grado deberá acreditarse mediante presentación junto a la solicitud de una certificación de grado consolidado en la Administración Pública, realizada por las Direcciones de Personal o asimiladas de las Administraciones públicas e instituciones de origen. |
| **BEDERATZIGARRENA. BALORAZIO BATZORDEAREN PROPOSAMENA** | **NOVENA. PROPUESTA DE LA COMISIÓN DE VALORACIÓN** |
| Merezimenduen balorazioa amaitutakoan, Balorazi Batzordeak | Terminada la valoración de los méritos, la Comisión de Valoración publicará en el |

| | |
|---|---|
| lehiatzaileen zerrenda, guztira ateratako puntuazioaren ordenan, argitaratuko du Udaleko Iragarki Taulan eta web orrian eta bost egun naturaleko epea emango da Batzordeari erreklamazioak aurkezteko. | Tablón de Anuncios y en la página web del Ayuntamiento la relación de concursantes por orden de puntuación total, concediéndose un plazo de reclamaciones ante la Comisión de cinco días naturales. |
| Trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioko eskalan emakumeak %40 baino gutxiago diren kasuetan. Salbuespena izango da da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean. | En caso de empate en la puntuación, se dará prioridad a la mujer cuando la representación de las mujeres en la categoría a la que corresponde el puesto sea inferiror al 40%. De persistir el empate, se acudirá para dirimirlo a la puntuación otorgada a los méritos enunciados, según el propio orden establecido. En su defecto, se acurdirá a la fecha de ingreso como funcionario de carrera en la categoría desde la que se concursa y, en su defecto, al orden de prelación obtenido en el proceso selectivo de acceso a la citada categoría. |
| **HAMARGARRENA. LANPOSTUAREN BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA** | **DÉCIMA. ADJUDICACIÓN PROVISIONAL DEL PUESTO** |
| Puntuazioak batuta, Balorazio Batzordeak puntuazioarik handiena lortu duen izangaia izendatzeko proposatuko du. | La Comisión de Valoración propondrá el nombramiento del candidato/a que haya obtenido mayor puntuación, sumadas las puntuaciones. |
| Deialdi honetan parte hartzeko eta lanpostua hornitzeko baldintzak egiaztatu ostean, Alkatearen ebazpen bidez erabakiko da deialdia eta iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta web orrian argitaratuko da. | Previa comprobación de los requisitos para tomar parte en esta convocatoria y para el desempeño del puesto, la convocatoria se resolverá mediante Resolución de la Alcaldía que se publicará en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la página web del mismo. |
| Puntuzioarik altuena lortu duen izangaia, lehiatu den lanpostua zerbitzualdian beteko du, lanpostua behin betiko izaeraz hornitu arte. | El/La candidato/a que haya obtenido mayor puntuación en el concurso desempeñará el puesto de trabajo en comisión de servicios, hasta la provisión definitiva del puesto. |
| Zerbitzualdian dagoen funtzionarioari | Al funcionario en comisión de servicios se |

| | |
|---|---|
| behin betiko atxikiriko jatorrizko lanpostua gordeko zaio eta berari dagokion kategoriako oinarrizko ordainsariak eta beteko duen lanpostuari dagozkion osagarriak jasoko ditu. | le reservará el puesto de trabajo de origen al que se hallen adscritos definitivamente y percibirá las retribuciones básicas correspondientes a su categoría y las complementarias asignadas al puesto desempeñado. |
| Behin behineko esleipenak borondatezko izaera izango du eta ondorioz, ez dute inolako kontzeptupean kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko. | La adjudicación provisional tendrá la consideración de voluntaria y, en consecuencia, no generará derecho al abono de indemnización por concepto alguno. |
| **HAMAIKAGARRENA. GORABEHERAK** | **DECIMOPRIMERA. INCIDENCIAS** |
| Batzordeak ahalmena izango du zalantzak erabakitzeko eta behar diren akordioak hartzeko, deialdia behar den bezala garatzeko, oinarri hauetan jasotzen ez diren gai guztietan. | La Comisión queda facultada para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden de la convocatoria en todo lo no previsto en estas Bases. |
| **HAMABIGARRENA. ARAUDI APLIKAGARRIA** | **DECIMOSEGUNDA. NORMATIVA APLICABLE** |
| Oinarri hauetan zehaztu ez den guztirako ondorengoek xedatutakoa jarraituko da: 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa; 388/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, Euskal Herriko Polizia Kidegoetako funtzionarioen Lanpostuak Hornitzeko Araudia onartzen duena; 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, EAEko Herri Administrazioetako funtzionarioen Lanpostuak Hornitzeko Araudia onartzen duena; eta aplika daitezkeen gainerako araudiak. | Para lo no previsto en estas bases se estará a lo dispuesto en la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, el Decreto 388/1998, de 22 de diciembre por el que se aprueba el Reglamento de Provisión de Puestos de Trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco, y el Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas, y demás normativa aplicable. |
| **HAMAHIRUGARRENA. ERREKURTSOAK ETA INPUGNAZIOAK** | **DECIMOTERCERA. RECURSOS E IMPUGNACIONES** |
| Deialdi hau eta hortik datozen egintzak inpugnatu egin ahal izango dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio | La presente convocatoria, y cuantos actos dimanen de la misma, podrán ser impugnados por los interesados en la forma y plazos establecidos en la citada |

| | |
|---|---|
| Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean ezarritako moduan eta epeetan. | Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. |
| | |